

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea 2019ko aurrekontuari

Nik, Miren Josune Irabien Marigortak, Amurrioko Udaleko alkateak,

Jakinarazten dut:

Amurrioko udalbatzak, 2019ko apirilaren 25eko osoko bilkuran, behin-behineko onarpenera eman zion 2019ko aurrekontu orokorrari (2018/2/S339 espedientea). Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuaren otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15.1 artikuluan xedatutakoa betez, agiri hori hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean kontuhartzailetzan, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkez diezazkioten udalbatzari, aipatutako foru arauaren 17. artikuluan xedatutako eran.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onartutzat joko da, halaxe xedatzen baitu lehenago aipatutako foru arauak 15.1 artikuluan.

Erreklamazioak aurkezten badira, Udalbatzak hilabete izango du erreklamazio horiek ebazteko, jendaurreko erakustaldia bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurrekontua behin betiko onartzeko egintzan erreklamazioak ebazten ez badira, ez direla onartu esan nahiko du.

Amurrio, 2019ko apirilaren 26a

*Alkatea*

**MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**